

## B30

## ]sigarica banendorren...

Herritik kanpo *lebante urrunean* (Korsikan, ziur aski) ibili ohi den maitalearen poema honetan, hiru parte bereiz daitezke. Lehenengoan (B30: 1-8), Korsikatik herrira itzuli eta berehala, bere laztana ikustearekin batean, maitemenez gaixotzen da. Bigarrenean (B30: 9-18), fribolitatez agertzen du bere elizkoitasuna: elizara doa, baina arima ez da bere kezka nagusia, arimarentzat eta gorputzarentzat behar baitu Magdalena santaren bitartekotza. Hirugarren partean (B30: 19-30), neska maitatua goraiatzatzen du (adeitsu, jakintsu eta dotorea da) eta hil arte haren senarra izango dela imajinatzen du.

Pareatu-segida honetan, bakoitiak zortzi (edo bederatz, eta are hamar) silabako libreak dira, errimarik gabeak, eta bakoitiak *-ea-* errima duten zazpi (edo zortzi) silabakoak.

[1204v]      ]sigarica<sup>1</sup> banendorren<sup>2</sup>  
                  ç]apatu<sup>3</sup> egun batean,  
                  lastanarequin<sup>4</sup> encontra neçan<sup>5</sup>

<sup>1</sup> *]sigarica*: Ez dago argi aurretik letraren bat galdu den ala ez. Edozein kasutan ere, *-rika(n)* ablatibo zaharraren atzizkia da, eta, seguruenik, toponimo bati erantsia, ez baitugu ezagutzen *-siga* bukaera duen euskarazko izen arruntik.

Poema osoaren testuinguruan (ikusi batik bat B30: 25-26ko *etorrico naiz / lebante urrunerean*), pentsa genezake *Corsiga* (hots, Korsika) izan litekeela toponimo hori, baina ez dirudi galduriko paper-zatian *Cor* idazteko lekurik zegoenik. Gainera, euskaraz ez dugu beste inon aurkitu forma horretan; gaztelaniaz, *CORDEn*, badago *Córciga* bat (Fray Bartolomé de las Casas, 1527-1550, *Apologética historia sumaria*).

Bestalde, gaurko EAEko toponimoen zerrendan ere ez dago *-siga* amaitzen denik; badago *Zigaran* (*Ziaran*) Debako Lasturren (cf. bestalde, Baztango *Ziga* herria), baina ez dirudi poemaren testuinguruan egokia denik halako leku txiki baten izena agertzea.

Atzizkiari buruz, cf. Portal *guiçonica, alegrerica, jarririca, jansirica, pobreçarica, yrtenica, arturica*. Eskuizkribuan hiru lekutan aurkitu dugu: *achaquiz arturica bisitea* (B15: 77), *[...]sigarica banendorren* (B30: 1), *Damarica dan galantaena* (B32: 3). Baina hemen bakarrik adierazten du ablatiboa. Eskuizkribuan bada *-tika* atzizkia ere, behin (*Gaztelatica* A12: 1).

<sup>2</sup> *banendorren*: ‘etorri nintzen, iritsi nintzen’; *etorri* aditzaren aoristo edo iraganaldi trinko burutu zaharra. Aditz-erroaren ahosuntzea dela-eta, ikusi halaber *nengusun* (A26: 56) eta *nendorrela* (B16: 1). Bestalde, *ba-*, Lazarragaren eskuizkribuan, aditz aurreko hutsa da batzuetan, eta ez du nahitaez galdegaia markatzen; hala da poema honetako B30: 10 lerroan.

<sup>3</sup> *ç]apatu*: Larunbata egun berezia da hala herri-folklorean nola kristau tradizioan.

<sup>4</sup> *lastanarequin*: Estibaliz Sasiolakoaren poemez osaturiko eranskinean, ugari dira txistukarien nahasketak: *esin* (B27: 16, B27: 17), *es* (B27: 21), *estaguçula* (B27: 25), *sure* (B28: 2), *çaytesque* (B28: 3), *sacusquedan* (B28: 4), *estaquistanean* (B29: 5), *estet* (B29: 7), *lastanarequin* (B30: 3), *equzten*

S]an Juanen<sup>6</sup> aurean  
 be]re iru matalotequin<sup>7</sup> 5  
 g]auça galanta<sup>8</sup> joean.<sup>9</sup>  
 Çazpi<sup>10</sup> urtecoz<sup>11</sup> eçarri nau  
 gajoturic<sup>12</sup> oean;  
 çorcierrean<sup>13</sup> irte<sup>14</sup> neban;<sup>15</sup>

(B30: 25), *gustiac* (B31: 3), *naguci* (B31: 4), *equci* (B31: 6), *lastan* (B33: 5), *flordeliçac* (B33: 13), *joci* (B33: 15), *Guipuscoaco* (B33: 18), *Gastelaco* (B33: 20), *gustiac* (B33: 35). Eskuizkribuko testu nagusian, berriz, soilik *desesperanças* (A1: 46) eta *esperanças* (A17: 31) aurkitu ditugu, eta Martin Lopez Bikuñaren poemetan *negarres* (B8: 4) eta *bearres* (B8: 8), instrumentalaren markaren lekuan <-s> txistukari apikaria dutela.

<sup>5</sup> *encontra neçan*: ‘topo egin nuen’; aoristo edo iraganaldi burutu zaharra. Garaiko gaztelaniaz *encontrar con* erabiltzen zen adiera honetan, eta ez *encontrarse con*; cf. *DAut*, s.v. *encontrar*: “E quando lo llevaban a soterrar, *encontraron* con Nuestro Señor Jesu Christo”.

<sup>6</sup> *S]an Juanen*: Herri askotan dago San Juani eskainiriko eliza, eta ezin dugu jakin, hortaz, nongoaz ari den, baina, edozein kasutan ere, hemen hurbileko lekua da *San Juan*.

<sup>7</sup> *matalotequin*: ‘zaldi zaharrekin’ edo ‘atzeko eta aurreko itsasontziekin’, hain zuzen irudizko adieran, hurrenez hurren, ‘atso zahar iharrekin’ edo ‘bizkartzainekin’ adierazteko. Gaztelaniaz *matalote* hitzak bi esanahi ditu eta bi horiei dagozkie hemen eman ditugun bi interpretazioak. Lehenengoak (cf. *DAut*, s.v. *matalón* o *matalote*: “adj. que se aplica a la caballería mui flaca, trotona y de mal paso”) aski lekukotasun du *CORDEn* XVI-XVII. mendeetan. Bigarrena (cf. *DRAE*, s.v. *matalote* 2: “*Mar*. Buque anterior y buque posterior a cada uno de los que forman una columna, los cuales se denominan de proa y de popa respectivamente”) itsasgintzako hiztegian erabiltzen da eta egokiagoa izan liteke testuinguru honetan, baina *CORDEn* ez dugu aurkitu horren lekukotasunik XVI-XVII. mendeetan. Edozein kasutan ere, irudizko adieran esan nahi duena argi dago: neska maitatua ez doa bakarrik, beti haren inguruan xexteroarena egiten ibiltzen diren lagun edo atsoekin baino.

<sup>8</sup> *g]auça galanta*: *Gauza galanta* hemen *laztanari* dagokion predikatiboa da.

<sup>9</sup> *joean*: ‘zihoan’; Lazarragaren eskuizkribuan, *joan* aditzaren iraganeko formek *j-* aurritzia daramate subjektua 3. pertsonakoa delarik (cf. *joan* AL: 1138v, B30: 6, *joala* AL: 1147r). Gisa horretako formak artzain-liburuan eta B testuan baizik ez ditugu bildu.

<sup>10</sup> *Çazpi*: *Zazpi* hau, *zortzierrean* bestea, tradiziozko poesiaren formula ezaguna da, hemen poema kultuan txertatua. Ikusi *Frantziako andrea* baladako bi adibide hauek: “Zazpi izera dodaz odolez mantxaurik. / Zortzigarrentxu onek narroia ni mundutik. [...] / Zazpi zaldi daukadaz izaraz jantzita / Zortzigarrentxua be, perlaz estalita”. Araban bertan, hona hemen Gorka Knörrek Legutianon Pello Azkunagarengandik ikasia (G. Knörr, 1973, “Arabako kanta zaharretaz zerbait”, *Zeruko Argia* 544, 16): “Zazpi arkako utxea daukat / neuk estrenatu bagarik, / zortzigarrena gorderik daukat / urrez ta barraz beterik”.

<sup>11</sup> *urtecoz*: ‘urtekotz, urterako’; *-koz* / *-kotz* atzizkia hala ekialdean nola mendebaldean erabili da *-ko* atzizkiaren antzeko erabileran. Cf. *Oñak otz elexarakotz, bero ezkonzarakotz* (RS 142).

<sup>12</sup> *gajoturic*: ‘gaixoturik’; <j> grafia sei aldiz aurkitu dugu eskuizkribuan txistukari sabaikariaren balioarekin: *najala* (AL: 1147v), *baje* (AL: 1153r), *bijeac* (A11: 35), *urteje* (A14: 6), *beajaco* (A16: 46) eta *gajoturic* (B30: 8).

<sup>13</sup> *çorcierrean*: ‘zortzigarrenean, zortzigarren urtean’; cf. *OEH zortzierri(an)*. Izatez *-garren* atzizkiaren kontrakzioa da; ikus hor bertan *amuskerrian* (< *amust* + *gerren*).

<sup>14</sup> *irte*: ‘irten’; *-n* galdu du, testuinguru fonetikoarengatik (*n-* hurrengo silaban).

banijoean <sup>16</sup> calean	10
debotoro ençutera	
Virginearen mecea.	
Madalena santea da	
ene abogadea:	
arren, emon deguidala	15
esca naquion <sup>17</sup> doea, <sup>18</sup>	
arimacoz eta gorpuzecoç <sup>19</sup>	
obe dedan <sup>20</sup> videa.	
Ene laztan biozeqoa,	
cortes ensinadea, <sup>21</sup>	20
erri <sup>22</sup> onetan bestec ezteu <sup>23</sup>	
ar[c] <sup>24</sup> oy <sup>25</sup> deben librea: <sup>26</sup>	

<sup>15</sup> *neban*: ‘nuen’; *neben* da eskuizkribuan forma ia bakarra, eta soilik hemen aurkitu dugu *neban*.

<sup>16</sup> *banijoean*: ‘joan nintzen’; *joan* aditzaren aoristo edo iraganaldi trinko burutu zaharra. Formari dagokionez, ikusi baita *nioean* (B21: 9) eta *niñoela* (B21: 15).

<sup>17</sup> *esca naquion*: ‘eska diezaiodan’ erlatibozkoa; eskuizkribuan *eskatu* aditzak NOR edo NOR-NORI erregimena du, beste euskal testu zaharretan bezala (*RS*, Leiz, Zalg).

<sup>18</sup> *doea*: ‘dohaina’; cf. Lcc “don, *doea*”. Cf. *OEH*, s.v. *doe*: “Tr. Atestiguado ya en Betolaza, aparece en textos vizcaínos y en algunos textos gipuzcoanos de autores vizcaínos; tbn. se encuentra en los guipuzcoanos Ochoa de Arin y Guerrico (II 67 *doia*, que podría tratarse de una errata por *doia*). Su uso disminuye notablemente en el s. XX. En cuanto a la distribución de formas, *doe* (en Capanaga con *e* nasal) es la más frecuente; se encuentra además *doa* en Barrutia y una vez en Cardaberaz (*CatV* 25), *due* en el ms. de Oñate (17r), y un único ej. seguro de *doi* en Urquizu”.

<sup>19</sup> *arimacoz eta gorpuzecoç*: ‘arimarako eta gorputzerako’; *-koz / -kotz* atzizkiaz, ikusi B30: 7 lerroa. Esanguratsua da ohar paleografikoa, *arimaraco(z)* idatzi baitu lehenengo.

<sup>20</sup> *dedan*: *de-* moldeko \**edun* aditzaren formak ez dira asko eskuizkribuan (eta gehienak Estibaliz Sasiolakoaren poemetan agertzen dira): *det* (A5: 26, B27: 2, B27: 4, B27: 10, B28: 9, B29: 4), *dedan* (B30: 18), *badeçu* (A16: 70, A28: 168), *deçun* (A26: 90), *estet* (B29: 7). Gutxi dira, orobat, *du-* eta *deu-* moldeetakoak.

<sup>21</sup> *ensinadea*: ‘jakintsua’; cf. *DAut*, s.v. *enseñado*: “Vale también sabio, docto, erudito. Es Hispanismo: pero mui frecuente y comúnmente usado”.

<sup>22</sup> *erri*: ‘lurralde, herrialde’; cf. Lcc “conquistar tierras, *erriac yrabaçi*”.

<sup>23</sup> *ezteu*: ‘ez du’; *deu-* moldeko \**edun* aditzaren formak ez dira asko eskuizkribuan, eta gainera poema gutxi batzuetan bildu dira (ikusi hemen, hurrengo lerroan, *deben*): *deut* (A16: 66, A19: 3, A19: 5, A19: 43, A19: 47, A25: 20), *deudan* (A16: 31), *badeu* (A24: 99), *deuc* (A25: 4), *deban* (B27: 5), *ezteu* (B30: 21), eta, hemen, hurrengo lerroan *deben* (B30: 22). Gutxi dira, orobat, *de-* eta *du-* moldeetakoak.

<sup>24</sup> *ar[c]*: Ergatibo-faltari dagokionez, cf. *inor[c]* (AL: 1145r, A28: 147), *ni[c]* (A7: 38, A17: 107, B3: 34), *neur[c]* (A9: 19), eta *ar[c]* hemen (B30: 22).

<sup>25</sup> *oy*: ‘ohi’; Eskuizkribuko poemetan maiz erabiltzen dira *oy* eta *oyta* betegarriak, bertso-lerroen neurri egokia lortze aldera. Lazarragaren eskuizkribuan, hamabi aldiz ulertu dugu *oy / oi* partikulak ‘ohi’

Franciaco armac <sup>27</sup> dacaz <sup>28</sup>	
goyan eta bean;	
aren equzten <sup>29</sup> etorrigo naiz	25
lebante <sup>30</sup> urrunerean. <sup>31</sup>	
Vioc ondo içango gara	
mund[u]an garan artean,	
paradisu erreinuan	
mundutic goacenean.	30

### Fin

---

#### OHAR PALEOGRAFIKOAK:

**1** sigarica] aurretik letraren bat galdu dela dirudi, baina ez dakigu zer, orria ezkerreko aldetik apurtuta dagoelako. **2** çapatu] ç- ez da ikusten, orria ezkerreko aldetik apurtuta dagoelako. **4** San] S- ez da ikusten, orria ezkerreko aldetik apurtuta dagoelako. || aurean] esk. *aurea*. **5** bere] *be-* ez da ikusten, orria ezkerreko aldetik apurtuta dagoelako. **6** gauça] *g-* ez da ikusten, orria ezkerreko aldetik apurtuta dagoelako. **7** eçarri] esk. *ecari*. **8** oean] esk. *oea*. **9** çorcierrean] esk. *corcierrean*. **10** banijoean]

---

adierazten duela ez bada ere): *egon oi da* (A14: 46), *oy ninduan penadu* (B12: 4), *Gabaz-egunaz oy nituan / aren atead rondadu* (B12: 5-6), *nic jagui bear oy dot oçac ilic* (B15: 48) eta *Bezpera artan gentez oy da / ayuntamiento andia* (B22: 19-20), *Eleiçara juen oy naiz, / eguin oy det becatu* (B27: 1-2), *Avemaria asi baice, / ecin oy det notatu* (B27: 3-4), *ofrendara dianean / ondo oy det miratu* (B27: 9-10), *Sperançaç bici oy n[aiç] / erri oneçaç atean; / sperancea galdu oy det / errira natorrenean* (B28: 7-10).

<sup>26</sup> *librea*: ‘zaldun taldeek jendaurreko ospakizunetan erabiltzen zuten uniformea’; cf. Lcc “librea, *librea*, *jançia*”. Cf., orobat, *OEH*: “**libraia** (SP, Urt II 39), **librea** (Lcc, Lar), **libreia**. ♦ *Librea*”. Cf., azkenik, *DAut*, s.v. *librea*: “El vestuario uniforme que los reyes, grandes, títulos y caballeros dan respectivamente a sus guardias, pages y a los criados de escalera abaxo, el qual debe ser de los colores de las armas de quien le da”.

<sup>27</sup> *Franciaco armac*: XIV. mendera arte, lis-saila ziren Frantziako armak, azurraren gainean; orduz geroztik, urre-koloreko hiru lis-lore (bi goian eta bat behean) geratu ziren, beti azurraren gainean. Hemen, dirudienez, jantziaren apaingarria da.

<sup>28</sup> *dacaz*: ‘dakartza’.

<sup>29</sup> *aren equzten*: ‘hura ikusten’; *aren*, hemen, TO-GEN deiturikoa da, hots, *equzten* aditz-izen iragankorraren objektua, genitiboan. Txistukariaren grafiak (<z> *pro* <s>) erakusten du ordurako txistukariaren nahasketa aurreratua zela kokagune honetan (hershari ahoskabearen aurrean).

<sup>30</sup> *lebante*: ‘ekialde’; Mediterraneoko ekialdeaz ari da, jakina.

<sup>31</sup> *urrunerean*: ‘urrunetik’.

*ni* erdi-ezabatuta dago. 17 arimacoz] *arimaracoz* idatzi du lehenengo, baina *-ra-* tatxatuta dago. || gorpuzecoç] esk. *gorpuzecoc*. 21 erri onetan] esk. *erionetan*. 22 arc] esk. *ar*. 25 etorrigo] esk. *etorico*. 27 içango] esk. *icango*. 28 munduan] esk. *mundan*. 29 paradisu] ondoren bi letra tatxaturik (agian *ra*). || erreinuan] esk. *ereinuan*.

**Nola aipatu testu hau:**

Lazarraga, Juan Perez, 2012 [c. 1602], “B30 – [...]sigarica banendorren...” [PDF], in G. Bilbao et al. (arg.), *Lazarraga eskuizkribua: edizioa eta azterketa (2.0)*, Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU. Interneten eskuragarri: <<http://www.lazarraga.com>> [Kontsulta: uuuu/hh/ee].



Lan hau [Creative Commons-en baimen baten mende](https://creativecommons.org/licenses/by-sa/4.0/) dago